

Oxtikenea edo hatsaren poesia

Juan Karlos Lopez-Mugartza

Goizetan ihintzari ohartzen direneri...
bai, lurra hunkitu gabe dabilzaneri...
eta manera berezi batez,
errealitatearen itxuren itxurak,
ixkribuz,
ixurtzen duten Poeta guzieri

Auxtin Zamora

Gaurko gure gizartean ez dago ezertarako astirik eta etekinak sortzen ez dituzten gauzentzako, hots, poesiarentzako lekurik ez dago. Garai txarrak bizitzen ari gara eta horretaz ohartzeak ez digu inongo mesederik egiten, aitzitik, ezerezaren amildegi sakonetara hurbiltzen gaitu eta ezjakintasunean bizi nahiko genuke. Auxtin Zamorarak dioen bezala: “Pentsatzen dugunaren erraitera libro gara, baina ez bizitzera”.

Literatura sortu zen une beretik olerkariak lehen mailako idazletzat hartuak izan ziren. Honela izan da beti, Grezia klasikotik gure egunetara arte. Gaur, ordea, kutsatuak baleude bezala tratatuak izaten dira. Aspergarriak dira, irakurtzeko “zailak”. Hiztegi “bilatua” darabilte eta inork ez du haiek esan nahi dutena ulertzen. Baina, hauxe al da poesia? Kultur talderik ez dute osatzen eta beren buruak idazletzat hartzeko ere beldur dira (libeloek diotenez oso erreza baita euskal idazlea izatea). Haien lanak izkutatzen dituzte eta argitaratu gabe geratzen dira sariren bat edo beste irabazten ez badute. Olerkari izkutuko hauek ez dute elkarren artean inongo ha-

rremanik eta bakoitza bere aldetik doa, gaixotasun larri batek kutsaturik egon eta Oran hiriko saguak bailiren. Izurritea hedatu da munduko lau izkinetan, eta gureetan bereziki.

Senperen mugimendu berri bat sortu da HATSA elkartearen eskutik, 1999. urtetik aurrera hasi dira, urtero, olerki bildumak argitaratzen. Hiru liburu plazaratu dira dagoeneko eta euskal olerkigintza garaikidearen antologiatzat har daiteke elkarre edo mugimendu literario honen emaitza. Egia esan, bertan idazten duten olerkariak ez dute talde bat osatzen baina elkartearen babesaren aurkitu dute idazle bezala haien buruarekiko fidantza eta maitasuna sendotzeko. HATSAREN kolkoan olerkari gazteek zein zaharrek aterpe aurkitu dute. Zerbait esateko duenak leku bat izaten du bildumaren orrialdeetan, izen ospetsurik ez duten idazleek ezin baitute hain errez deus ere argitaratu; hemen, berriz, ezagunek eskua luzatu eta laguntza ematen diete ezezagunei poesia benetan bizirik dagoela erakutsiz.

Hatsaren poesiak “ez du iritzien begira egon nahi izan” baina, kasu honetan barkatu beharko nau, bere desioak, nolabait, traditu izan baitituz, zeren horixe baita bere lana eskertzeko dugun bide bakarra: kritikaren plazara ekarri eta arrakastaren berri ematea. Onerako izanzen da beti, lan egiten duenari lan egiten ez duenak ezin baitio hitzik nimiñoena esan, inolaz ere ez.

Poesia, hegal gaketuen ihesia...

HATSAREN iraultza poetikoaren erantzule Oxtikeneako *Auxtin Zamora* olerkaria da. Bere estiloa, arina eta alaia. Hitzen jolasean maisu. Aliterazioaren eta epiforaren sekretuak ongi dakizki. Poesiak azaleratzen dituen ixiluneak karrasi bilakatzen dira eta beren zama mingotsaz hustu ondoren ihesi doaz, ura ibaian bezala. Zahartzaro hurbila edo pixkanaka-pixkanaka, tantaka edo “tinttaka bizi ditugun egun guzien zegunda” du gogoan, urtzen ari zaigun bizitza egun euritsuen azpian.

Artikulu hau berari eskeintzen diot. Hiztegi modura berak bildutako olerkari guztien berri aldizkari honen zenbaki honetan eta hurrengoetan ere emanen dudalarik. Izan ere, denak ezin baitira orrialde gutxi hauetan aipatu. Hastapen honetan, 2000. urteko poesia bilduman beren abotsa hedatu nahi izan zuten batzuen aipua eginen dut, ez guztiena, besteena hurrengo batean egiteko konpromezua hartzen baitut. Honetara ekarri ditudan sailkapen alfabetikoaren ordenari jarraikiz bildu ditut eta hasiera bat denez, hasierako letrak bakarrik aipatuko ditut eta gerokoak, gero.

Olerkariaren erantzunari dagokionez, lehenengo liburuan berrogei idazleek parte hartu bazuten, 2002ko maiatzaren 8an egin zen “HATSAREN poesia”-ren IV. edizioan ehun olerkari inguru. Nolabait esateko, *Auxtin Zamora* sorturiko zerrendan egun Euskal Herrian idazten duten olerkari gehienak jasoak daude eta oraindik ez daudenak, zerrendara lotuko dira goiz ala berandu. Buruan erramu boneta darabiltenek bat egiten dute hilkorren munduan bizi direnekin eta aldareetan daudenek eskua luzatzen diete maitekorki bestela infernuko sugarretan erreko ziren idazle ezezagunei. Hor datza mugimendu literario honen arrakasta eta handitasuna. Egun, *Korrok*, *Lubaki Banda* eta gainerakoak urtu direnean eta mugimendu literario jaki-

nik ez dagoenean (Errenteriko *Mikelazulo* elkartekoak salbu), lapurtarrak dira erne dauden bakarrak eta euskal poesiaren naufragoak salbatzen ari dira. Zer esatekorik duenak badu leku bat Senpereko Oxtikenea egoitzan eta elkarteak urtero antolatzen duen festan.

Poesia, Hatsaren poesiaren zenbait poetaren iritzi

Zer da poesia? Edo, bestela esanda, norberarentzat, banako bakoitzarentzat, poeta-
rentzat, zer da poesia? Zeren eta poesia dena edo ez dena erabakitzea, bakarrik gure burmuinen edota bihotzen izkutuko labirintoen bihurgunei dagokie. Hona hemen, lagin bezala, Hatsaren poesia atondu eta dastatu duten olerkari batzuen iritzia. Guztiz aleatorioa izan da aukeraketa. Edozein ona izan zitekeelakoan, idazle ezagunak eta ezezagunak, gazteak eta ez hain gazteak bildu nahi genituenez, hauxe da hautatu dena: *A* letraz hasten diren deituren jabeen iritziak eta (logika apurtzeko edo *fuzzy* bilakatzeko) *B* letraz hasten den lehenarena aipatzearena. Ikus dezagun, bada, HATSAREN POESIAREN atariko poetek esan behar ditugutena:

Eneritz Abruzak dioenez, poesia “benetako izpilu batean jartzea bezala da, batzutan egi osoko sentimenduetan biluzten zaitu eta besteetan ametsetan galduarazi”. Bere olerkietan desioa gauzatu egiten da eta amodioarekin lotzen. Bizitzan maitasuna handiena baita. Hala eta guztiz ere, itsasoaren edo ibaiaren urak dakarzkigu mendi nahiz izar artean, zeruan libre dagokeen lagun hurkoari (maitale sekretuari?) adiorik ez esateko. Hil-eresia bizi-eresi bilakatzen du, lagun handiaren dizdiz ederrinari izarretatik haratagoko mundura paperezko mezu maiteminduak helaraziz, kristalezko botilatxo batean, itsasoan balego bezala.

Jakes Ahamendabururentzat poesia “bizitzaren izuran datza, ametsa hastear den unean, tristura eta atsedena mugetan, oroitzak ezbaia irensten duen gunean”. Olerkari honek forma poetikoari garrantzi handia ematen dio —ahapaldi neurtuak eta errima klasikoak gaurkotzen ongi baitaki— arrantzaleen itsasoratzeko beldurra eta galerna aurreko gaueko egonezina adierazten dituen *Gabez* bezalako olerkietan; baina, halaber, neurtitz librekoetan aise murgiltzen badaki erritmo lasaiak eta, hitzen errepikapenari esker, konzentrikoak, hipnotikoak sortzen dituelarik: “zorionaren desertu / amets zoroz gabetua / desertu asprea”, “ez! eleen eta jestuen arteko / jestua bera baita ele / eta elea nunbait beti jestu”. Olerkariak adizki ahaztuenak bidera ekartzen ditu berriro (ez zindezakeelarik asma!), euskara joria erabiliz metaforen mundu alegorikoan barneratzen gaituelarik, orain hitzak eta irudiak ahoan hormatzen dizkigu, gero oroitzaren mirailak ez digu deus ere barkatuko, olerkari honek, egiazki, zintzotasunez jokatzeko baitu.

Jon Aiastui edertasunaren bila dabil. Maitasun olerkiak idazten ditu maitasunaz hitz egin gabe. Tristurarik gabeko olerki desengainatuak dira. Karmindurarik gabekoak. Egunkariak erosten ditu albisteek inoiz esaten ez dutena ea gaur esaten duten jakiteko eta esaten ez dutela baieztatu ondoren banku gainean ahanzten ditu “eguzkiaren laztana gozaten duenak bezala”, olerkia zerbait pragmatikoa baita, arte garbia, arte hutsa, baina, aldi berean, erabilgarria. Itsusi den edo itsustu zaigun mundu hau eder dezakeen tresna, inguratzen gaituen honenbeste ezintasunaren artean, kirastua ez dagoen eremu bakarra.

Kepa Akixo “Zigor”-rentzat poesia “bi munduak lotzen dituen zubia” da, alegia, gure mundua eta errealtatearen mundua batzen dituen, gurea ez baita egiazkoa, hitzaren kartzelarena baizik. Musikaren zubian ametsekin dantzatu behar dugu ibaiez gandi eta beharrezkoa izanen da infernuko sua ezagutzea, konturatzeko zenbait den eder eta grina guztien asetzaila. Ixiltasuna da benetako askatasunaren ekar-le eta hartara bildu behar dugu eskuekin, oinekin, gorputz osoarekin bildu ere. Amodioa –edo larrua jotzea, nahiago balitz– da errealtate munduarekin zuzenean lotzen gaituena, horixe bera ere, hein batean bederen, poesia baita: “lokartuko gira pixkat / esnatuko gira erdizka / eta zigarrotxo bat errez / asmatuko degu noiz / berriz alkartu”.

Daniela Albizuk etxerat itzultzean sakonki hartzen du arnasa, plazer handia baita “gauaz kanpoko aire fresko eta lurrindunaren usnatzea, burua xoratu arte” eguneroko gauzak zinez miresgarriak dira espetxean dauden presoentzat eta Danielak lagun minak baditu burdin hagen bertzaldetik. Poesiaren lekua zein da orduan? Presoak oroitzuz, tristuraz eta oldartzez betetzen zaio bihotza eta,aldi berean, idaz-tera bultzatzen du, nahiz eta isilean gorde bere pena, nahiz eta inori ez esan itsasoan igerika ibili dela ziegan daudenei ur tantarik ttipiena ere ukatu zaien egun berean. Bizitza bizi behar da, nahi eta nahiez. Bera ere, loretan egona izan da baina “ez nuzu batere lorietan”, bi hilabetez Parise inguruko “Karrika Zurxuri” zumdiko loretan ibilia baita, bai, Fleuri, Fleury-Mérogis izeneko presondegian. Poesia baino gehiago prosa poetikoa da berea. Edo ez, elkarrizketa itxura duten bere bu-ruarekiko bakarsolasak agian. Edo ez, oinazearen kronika da, kukuaren poesiaz mozorratua: “*Ne vous plaignez pas, vous voyagez en avion gratuitement!* Zioten. Bai ka-ka hiretzat!!!”

Aurelia Arkotxa, unibertsitateko irakaslea eta olerkaria, literatur ikerketaren alo-rean lan sakona egina, poesia definitzeko unean itsasoaz eta lur izkutukoez mintzo da. Poesia “urhegiko hitza” dela dio, “mappamundi zaharretan artxipelak sorraraz-ten dituen geografia berria”. Olerki laburrak eta biziak oparitu dizkio HATSaren poesiari. Kultura handiko olerkaria izanik, bere adimenaren bizitasuna eta ideien abiadura itzela agerian geratzen da. Olerkien izenburuetan itsasoarekin edota itsa-soa alderik alde zeharkatuz aurkitzear dauden lurrekin zerikusirik duten latinezko esaldiak erabiltzen ditu, XV. eta XVII. mendeko egileek erabili zituzten berberak. Halaber, Joannes d’Etxeberri Ziburukoaren baleazaleen otoitzen indarra nabaritzen da, *Manual Devotionezkoaren* oihartzuna gure burmuinetara ekarriz, Kanadako portu urrunen adierazle. Itsasuntziak, itsas hegiak, harpoilariak, arrantzale euskaldunak Red Bayko urhegian. Eta pixka bat iparralderago, *Oceanus Septentrionalis* aldean, hormamendi geldiak.

Rikardo Arregi Diaz de Herediak amodiozko olerki lirikoetan olerkigintza epi-koa jorratzen du, oximoronaren labirintoan maisu izaki. Egile honen literatur bi-deak irudikatzen unean, XXI. mendeko koblakari baten erromantzeen aurrean gaudela esango nuke edo, bestela —eta agian zehatzago izanik—, gorputz atalak (zatiak?) ikertzen dituen forense baten txosten burutsuaren aurrean, poesiaren hitzezko eremu hotzanari azkazal zatiak eta eroritako iletxoak gaineratzen baitiz-ki. Amodioa eta lirismoa, gorputzaren urkinak elkarri trukatzeko behar fisikoa eta lirismorik onartzen ez duen animaliatasuna. Olerkariak bestearen gorputza

behar du eta sorginkeriaz baliatuko da behar duen gorputzaren jabeak sorginkeriaren sinesten badu edo, berdin zaio, zientziaz baliatuko ere, gorputz zuloen eta urkinen jabeak zientziaren nagusigoan sinesten badu. Bide guztiak zilegi zaizkio duen “amodio liriko” adierazteko, jarritako muga guztiak apurtu eta gainditu nahi baititu gorputz desiratuaren azalaren gainean bere eskuak epikoki hega daitezzen.

Yolanda Arrieta-Malaxetxebarriak olerki bakarra argitaratu zuen 2000. urteko bilduman. Olerki xamurra eta inozentziaz betea dirudikeena, baina anakolutuaren erabilera egokiari esker subkontzientearen mezu ixilekoa entzun daiteke aski ozen eta klar... Ai maitatzen baneki! Inozentzia alde batetik bai, olerkariak ume izaten jarraitu nahi badu poesiaren laguntzaren bitartez, baina ikasteko nahia eta pikardia puntu bat ere, amodio kontuetan denok zer ikasi baitugu eta deus ere ez dakienak oraindik ere gehiago. Olerkari honek, ordea, jakin badaki, kontrakoa esan eta lotsatia bailitzen anafora ugari eta, gorputzaren beroak eraginda, arnasa behar baino gehiagotan hartu ahal izateko oin hautsiko lerroak erabiltzen baditu ere: “Baneki / —eta ez dakit—, / oihal handi batean murgilduko / nintzake zurekin, / maite, / zu behatz, / eta ni / ditare”.

JosAnton Artze “Hartzurt” olerkariaren iritziz poeta batek saiatu behar du gu bezalako jende xeheari erakusten jendeak ikusten ez duena (edo, oro har, ikusten ez dena, ezin ikus daitekeena erakusten), poetak huraxe ikusten baitu. Nolabait esateko olerkaria bitartekari bat da, *medium* antzeko bat eta gure begieei ukatzen zaizkienak berak ikustaraziko dizkigu poesiaren bitartez. Bestela, zertarako erakutsi guk geuk ikus dezakeguna? Badu olerkariak beste lan larriagorik betetzeko beharra, begia galdu duenari, galdutako begiari so dagoenari edo “oraindik dakusan begiaz / ez dakusan begi itsuari so eta so / itsutuki begira” dagoenari astinaldi ederra eman behar dio, honela jarraituz gero itsutuko baita begi bat osasuntsu izanik ere. Zorionaren eta zorigaitzaren arteko muga oso fina da, zirriborratua agertzen zaigu askotan. Gure esku dago zorigaitzaren hatzaparretatik ateratzea edo, nahi badugu, ero-soago sentitzen bagara horrela, zorigaitzaren auto-gupida betierekoan murgiltzea. Gure aukera da, baina egoera guztietan zer ikasi badugu eta galdu dugunak gelditu zaigunaz jabetzeko balio izan badigu ez al gara guti galduz eta anitz irabazten atera? Hauxe da JosAntonek egiten digun galdera.

Amets Arzallus gerraren ondorio latzenetatik ihesi eguzkiaren bila doan ibiltaria dugu. Kosovoko bide minatuetan, fusilen hotsez okazturik, bertsoak eta poesia uztertzen dituen atzerritarra. Izan ere, ahozko literatura inon bizirik baldin badago Euskal Herrian izan da, bertsolaritzak lehengo mendeetako izpiritua mantendu baitu eta poesia bilakaturik gure egunetara ekarri. Holakoxea da Amets, errimaren beharra duen poetaz mozorraturiko bertsolaria. Neurtitz librearen garaian, libreago sentitzen da oraindik erritmo jakin bati errima askeak ematen.

Mikel Asurmendik erritmo biziko olerkiak ditu gogoko, abiadura handiko errepi-deetan bidaiatzera ohitu da eta ez du galtzeko astirik. Aresti miresten duela aitortzen du eta keinu bat egiten dio olerkari honi 2001eko antologian. Haren itzala nabaritzen da olerkia egituratzeko eta antolatzeko unean, baina gainerakoetan antitetikoa da, arina da oso, kontzeptuak bata bestearen atzetik dator uholdeka informazio guztia prozesatzeko astirik eman gabe. Asurmendik gogoratzen duenez,

Arestirentzat poesia mailu bat zen, eraginkorra, kolpea emateko prest dagoena, eta mailua izateagatik pisu handiko beraz. Baina, berak sortzen duen poesia sokaren beste muturrean kokatzen da, eraginkorra da bai, baina hegalaria, kolpea eman behar baldin bada emanen da baina printzipioz ez du mailukada eman nahi, baizik eta, ilusioaz eta gogoaz, bizitzari bizitza, anaiari ikasitakoa eta maitatu zutenei eman zioten bizia eskertu nahi dizkie.

Eta agindu bezala, orain, goiko idazleei esker poesia zer den dakigularik, jakin dezagun lagin honetatik kanpo dagoen beste olerkari baten iritziz zer den eta zer ez den benetan barneko arima hustea. Barneko harra elikatzea. Izan ere, *Manex Bergaraten* poesiak kanten mundura garamatza, bost lerrotako ahalpaldiak erabiltzen ditu, hamahiru silabakoak baina zesura garbi eginez zazpigarren silabaren atzean. Bertsolarien poesiarako gogoia, berriro ere, argi erakusten da hemen. Gai herrikoiak darabiltza (“oporretan jendea farrandan dabila”) eta bere sorterriari loturiko arazoak salatzen ditu. Jendearen maltzurkeria ongi ezagutzen du baina ez da horregatik maltzur bilakatzen. Kitzikatua izan da eta liztor-jendearen eztenkadak ezagutu ere, baina ez du horregatik ziztatu. Kasu honetan ere, poeta besarkadaren alde agertzen da, bere poesiari irria dario, eta zoriona, norberak bihotzean baitu poesia (barne erreka bada, edo egosia).

Hatsaren poesiaren gaiak

Seguritate soziala, Visa txartela, Euskal Herria(ren geroa?), euskararen erabilpenaren gai minbera eta kolore anitzeko pastillak Itxaro Bordaren zitoplasmak eta hauek inguratzen dituzten mintzak lotarazteko (*stress, panic, anxiety*). Begiradak, ezpain goriek musukatzean dakarten hotza Iñaki Bravoren gorputz izu/izoz/tuan edo, bestela esanda, maitasunean hasi berriak direnen amodio iheskorren hozpe-
ra eta biharraren zalantza. Zubereraren indarra bihotzak goratu eta zoriona eta bozkarioa ozenki aldarrikatzeko, Junes Casenave-Harigile: Ûthürria, gorderik den sorgia, buztana ikara ixtil txoriak, idazlearen luman ez dū lekürik ülüntarzunak. Natura eta haizea, ekaitza eta ixiltasuna, zimizta zuriak eta argia, zure barnea zulatzen dituzten mihi hotzak Junes Casenaveren olerkian. Indietako jainkosa bere andreari jarritako hitzak (“bihotz bat zutaz betea”), arranoak bezala eta Icaro eraberrituak bailitzen parapente-hegalez jantzita Zuberoko bortuen paradisu-
sua den zelüko leihoan hegoa eta iparra menperatzen dituen laboraria, Jean-Louis Davant. Akropolia, Ama-Lurra, izar-bidea, irrika eta jakintza, grazia eta itxaropena Eñaut Etxamendiren mundu erreferentzian. Txetxeniarak eta soldadu errusiarren harma, tiro, pum eta munizioak, Kanboko langile goiztiarren kafe beroa eta, bizirik gaudeno, zeruzelai urdinean eta karrikaren izkinean beste egun gehiago marraztu delako zoriona, Luzien Etxezaharretak opa izana. Zer ote garen, zer ote EZ garen? “... nora eta nondik jakin / nahiz, eternitate eta orenak / ... eta amaiarik balego, zer ote / gero?” (Patxi Ezkiaga). Honelaxeko gaiak, honelaxeko grinak, honelaxeko barne ikerbideak, amodioz, bilduma honetara bil-
duak.

Hatsaren idazleak

Eneritz Abruza, Henriette Aire, Daniela Albizu, Aurelia Arkotxa, Yolanda Arrieta, Ainara Balantzategi, Itxaro Borda, Nekane Dagerre, Oihana Dagerre, Karmen Esteban, Agnes Ezponda, Arantxa Hirigoien, Extefana Irastorza, Ana Isabel Iturbe, Amaia Iturbide, Amaia Lasa, Ainara Maia, Miren Agur Meabe, Elene Mendizabal, Marijane Minaberry, Maripi Solbes, Graxi Solorzano, Arantzazu Ugarte, Nekane Urkizu, Bego Zestau, Ima Zestau, Amaia Zubiria. Oraintsu arte, olerkigintzan aritzen zirenen artean emakume-izen gutxi entzuten ziren. Argitaletxeak ezezagunaren aurrean beldur izaten dira. Porrotaren beldur, diru-galerak izateko arriskuak berebiziko garrantzia du liburu bat edo beste argitaratzeko ulean.

Idazle ezagun gehienak, baten bat izan ezik, gizonaetakoak dira. Horiek dira gehien saltzen dutenak eta liburuak arazo handirik gabe plazaratuko dituztenak. Besteak, aldiz, ilunpetan daude. Inork ez ditu irakurtzen inork ezagutzen ez dituelako eta haien lanak ez daude apalategietan bildurik.

Hatsaren poesian, berriz, denak dira onartuak eta argitara emanak. Ondorioz, normalean izkutuan dagoena agerian gertatzen da. Kaxoi batean ahaztuta dagoena, *Peru Abarka* ospetsuaren antzera, esnatu eta kritikaren plazara hurbiltzen da. Hori da, hain zuzen ere, bilduma honek ahalbidetzen duena, errealitate berri bat erakusten digu. Merkatuak estaltzen duena, azaleratzen digu. Existitzen ez zirenak, bizi-rik daude. Bai; emakumeak badira, izan, euskal literaturan eta, agerienez, olerkigintzan bereziki, ia-ia idazleen zerrendaren erdia harrapatzen baitute. Ez da gutxi.

Gizonezkoen artean, Jakes Ahamendaburu, Jon Aiastui, Piarres Aintziart, Kepa Akixo, Luigi Anselmi, Jakes Antz, Alvaro Aragon, Rikardo Arregi, Joxe Agustin Arrieta, JosAnton Artze, Txaber Azpitarte, Mikel Asurmendi, Karlos Azkarate, Iñaki bastarrika, Manex bergara, Iñaki Bravo, Junes Casenave-Harigile, Jean Louis Davant, Eñaut Etxamendi, Luzien Etxezahareta, Oier Fernandez, Iñaki Hervada, Xabier Iratzeder, Imanol Irigoien, Juan Mari Irigoien, Peio Jorajuria, Gabriel Korta, Manex Lanatua, Asier Larretxea, Gorka Lasa, Juan Ramon Madariaga, Gerardo Markuleta, Mikelats Gorroto, Luis Mari Mugika, Olarizu, Juan Luis Otamendi, Xabi Pascual, Andoni Salamero, Juanma Sarasola, Karlos Santisteban, Xabier Soubelet, J. Pier Soudre, Kirmen Uribe, Mikel Zumeta eta Edu Zelaieta.

Zerrenda honetara Euskal Herriko bazter guztietako idazleak bildu dira, horien artean bi aldeetako nafarrak. Itxaro Borda, adibidez, Oragarren (Behe Nafarroan) jaioa eta Bego Zestau "Tittu" Iruñean (Nafarroa Garaian). Batzuen iritziz, Aingeru Epaltzak behin baino gehiagotan gogoratu digunez, XX. mendea izan da idazle nafarren mendea. Nafarroan, egia da, euskalki guztiak batzen dira, euskalki guztiak dira "nafarrera", baina duela gutxi arte idazle nafarrak lotan zeudela zirudien, Etxepare eta Axularrekin, Larreko eta Manezaundirekin nahiko genuela ematen zuen. Eta ez da hala. Azken hamarkada hauetan izenak eta izenak gaineratu dira hasierako nomina urri hari. "Gorka Trintxerpe" (Patxi Zabaleta) ospetsutik hasi eta "Tittu" (Bego Zestau) olerkari hasiberrirainoko bidea luzea izan da baina,aldi berean, ustez baino arinagoa. Idazle batzuk aipatzearen, hauek azpimarratu beharrekoak dira, Aingeru Epaltza (jakina!), Pello Lizarralde, Josetxo Azkona, Jon Alonso, Eduardo Gil Bera, Juanjo Olasagarre, Patziku Perurena, Iñaki Zabaleta... eta Jokin

Muñoz eta Isidro Rikarte eta Mikel Taberna eta Maite Urkia eta beste hainbat... Gazteen artean, Alberto Ladron, Garikoitz Berasaluze, Amaia Elozegi, Castillo Suarez, Aitor Txarterina... Behenafarrak ahaztu gabe, hauek ere prestigio eta kalitate handikoak, Itxaro Borda, Antton Luku, Daniel Landart... Pixkanaka-pixkanaka aurrera goaz, Nafarroako literaturaren historian beste orrialde bat gehiago gainera dai-teke, idazle gutxi oraindik, emakume gutxi oraindik, baina inoiz baino gehiago, inoiz baino proiektio gehiago ere euskal literaturaren unibertsoan; eta hau, hein ba-tean, HATSAREN POESIAri esker: *Nahiaren ezinak minaren inguruan sortutako une ga-zi-geziak...*

● *roitzapenak dantsan gora-behera,
desiraren eskutik hartuta*
(Bego Zestau)

Bibliografia

- HATSA (1999, 2000, 2001) *HATSAREN POESIA*, Olerki Bildumak 1999, 2000, 2001.
Senpere: Hatsa Elkartea.
- KORTAZAR, JON (1997) "1996ko kaiera", *Hegats* 15/16, Literatur aldizkaria. Euskal Idazleen Elkartea: 83-98.